

# LANA, FAMILIA ETA BIZITZA PERTSONALA UZTARTZEKO ITUN MANKOMUNATUA



## BORTZIRIAK

Itun honen diseinua eta lanketa Nafarroako Berdintasunerako Institutuak koordinatu du, eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, eta Europako Gizarte Funtzak finantzatu dute, Nafarroarako 3. Xedeko Programa Eragileko (2000-2006) 6. Ardatzeko 6.3.6 ekintzaren barnean.

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna da XXI. mendeko erronka nagusia. Berdintasun formala gure ordenamendu juridikoan jasota badago ere, herritarren arteko berdintasun erreala hitz egitea eragozten duten gizarte jarduerak aldatzea eskatzen duten diskriminazio modu ugari dago oraindik ere. Gizartearen garapena eta kohesioa lortzeko gakoetako bat berdintasun erreala erdiestea da, inolako zalantzarik gabe. Berdintasun horrek gizarteari (bere osoan) dakarkio onura, bai emakumeei, baita gizonei ere.

Instituzioek eta ekonomi eta gizarte eragileek ekintzak sustatzen dituzte emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasun egoerak gainditzen saiatze aldera. Egiturazko aldaketak bultzatzen dituzten epe luzerako estrategiak, eta pertsonen eguneroko premiei erantzun eta bidezkoasunean oinarrituta ez dauden harremanetatik sortzen diren zailtasunei aurre egin asmo dieten epe ertainerako eta motzerako estrategiak daude.

Ekonomi bizitza, eta, zehazki, lan arloa, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko oinarrizko esparruetako bat da. Gure gizarteetan, familiako eta etxeko erantzukizunak emakumeen eta gizonen artean modu desberdinean banatzea eragozpenik handienetako bat da emakumeak lan arloan erabat murgiltzeko, merkatu horretan irauteko eta gora egin ahal izateko, eta, aldi berean, lana sexuaren arabera banatzea, eta bizitza publikoan eta pribatuan emakumeak eta gizonak banantzea dakar. Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea arazo konplexua eta gatazkatsua da herritarren zati batentzat, baita, ordea, gizonezkoentzat, familientzat, udalerrientzat, enpresentzat, lan merkatuentzat eta, oro har, gizartearentzat ere.

Hori dela eta, gure iritziz nahitaezkoa da emakumeei eta gizonei beren lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea erraztea, mendekotasuna duten pertsonen arretaren arloan familiei sostengua emanen dieten neurri eta zerbitzu gehiago eta hobeak emanaz, lana antolatzeke modu berriak bultzatuz, giza baliabideak bestela kudeatuz, eta

administrazioetan eta enpresetan lan baldintza berriak ezarriz. Baina, batez ere, gure iritziz, pentsamoldeak aldatu behar dira, etxeko eta familiako erantzukizunak eta eginkizunak orekan banatze aldera, eta, halaber, denboraren banaketa egokia egin beharra dago.

Uztartzea bereziki eta berriaz emakumeei eragiten dien gatazka baten emaitza dela pentsatzea guztiok gairatu beharreko ideia da, oso garrantzitsua. Zainketaren etikaren garapena bultzatu nahi dugu, gure iritziz horixe baita aukera berdintasuna sustatzeko gakoetako bat, eta, bereziki, uztartzea erraztuko duen tresna. Mendekotasuna duten pertsonen zainketa etxean egitea, eta arreta familian eta komunitatean egitea proposatzen dugu. Emakumeek eta gizonak berdintasunean egin beharreko eginkizuna da, horrek herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea ekarriko baitu.

Udalerrria, herritarrarekiko hurbiltasuna dela eta, marko egokia da uztartzeari begirako baliabideak eta zerbitzuak sustatzeko eta kudeatzeko, baita herritarraren etika bultzatzeko ere. Udalerriatik bertatik uztartzea errazteak uztartzeari begirako baliabideak eta zerbitzuak ezartzeko prozesuaren fase guztietan herritarrak inplikatzeko eta parte hartzea eskatzen du, bai diseinuan eta antolaketan, baita kudeaketan eta erabiltzean ere. Orobat, enpresak eta beste toki-erakundeak herritarraren etika bultzatzeko duten lan modu berrien garapenean inplikatzeko eskatzen du. Aurrekoek gain, herritarrek eztabaida prozesu batean eta jokabideak eta jarrerak zalantzan paratuko dituen prozesu batean parte hartzea eskatzen du, uztartzea bideratzearen, zainketaren banaketan oreka jokatzea bideratuko den prozesuan.

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esparruan lan egiten duten entitateen eta eragileen arteko ITUN MANKOMUNATUA proposatzen dugu, berau izanen delakoan Bortzirietako herritarrei familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea bideragarria egitera zuzendutako aipatu helburu horien alde batera lan egiteko konpromiso aktibo eta parte hartzailea. Itun horren asmoa generoen arteko harreman berriak finkatzea da, emakumeak eta gizonak bizitza pribatua eta publikoan aktiboki parte hartzearen aldeko konpromisoan inplikatu.

Azken urteotan, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eskualdeko udalen laguntzaz, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak gairatzea ahalbidetuko duten gizarte egoerak sortzeko eta sustatzeko konpromisoa hartu du. Berdintasunaren aldeko lanak partekatzearen ideia barne hartuko duten dinamika abian paratzea eskatzen du, eta emakumeak gizonen mende paratzen dituzten mendekotasun egoerak eta aintzatespen eza alde batera uztea.

Xede horri erreparatuta, Mankomunitateak 2005ean abian paratu zuen prozesuaren lehen urratsa Bortzirietako emakumeen egoeraren azterketa egitea izan zen; horrek, emakumeen premiak, eskakizunak eta nahiak ezagutzeko aukera eman zuen. Azterketa horrek Bortzirietako I. Ekintza Positiboko Planaren lanketa kokatzea ahalbidetu zuen. Aipatu Planaren instituzioetako ordezkariak, talde profesionalek eta gizarte eragileak parte hartu zuten. Plana 2006ko ekainean onartu zen. Plan horren bitartez, arlo desberdinetatik eta norabide berean jarrerak, ekimenak eta proiektuak bideratzeko aukera emanen duen markoa ezarri nahi da. Emakumeek eta gizonak zenbat eta gehiago partekatu, orduan eta aiseago eratuko dugu justizian eta elkartzunean oinarrituko den gizarte.

Testuinguru horretan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak idazkia igorri zien Foru Administrazioari eta Nafarroako Emakumearen Institutuari. Aipatu idazkian, I. Ekintza Positiboko Planean jasotakoaren arabera, emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak desagerraraztearen alde lan egingen duela adierazi zien, eta, aldi berean, sostengu irmoagoa jaso ez izanak Mankomunitateari sortzen zion kezka adierazi zien.

Nafarroako Emakumearen Institutuak Nafarroako Toki Entitateei bideratzen dien diru laguntzak emateko deialdia onartuta (emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko udalen konpromisoa bultzatzera eta dinamizatzaera espresuki zuzenduak), 2006an berdintasunerako teknikari bat kontratatu zen, Berdintasun Planean jasotako jardueren plangintza egiteko, kudeatzeko eta ebaluatzeko.

Urriaren 3an, Bortzirietako Mankomunitateak Ainhoa Güemes Moreno aldi baterako kontratatu zuen Berdintasunerako teknikari lanetarako, lanaldi osorako, obra edo zerbitzu jakina egiteko, 2006ko urriaren 1etik 2007ko abenduaren 31ra bitartean.

Antzemandako premiak kontuan hartuta, Bortzirietako Itun Mankomunitateak honako helburu hauek landuko ditu:

- Mankomunitateko herritarrak sensibilizatu honako honen inguruan: beren etxeetan gizon-emakumeek beren seme-alabak hezten duten erantzunkidetasuna, zainketaren balioa eta etxeko lanak berdintasunean banatzea bezalako baloreak sartzeak duen garrantzia.
- Enpresek administrazioek uztartzeari buruz finkatutako legeak eta aurrerantzean finkatuko diren legeak beteko dituztela zaindu.
- Aitak sensibilizatu, aitatasun baimenak bultzatze aldera.
- Bortzirietako sindikatuak eta enpresaburuak sensibilizatu, negozioazio kolektiboaren bitartez lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatuko duten neurriak eta zerbitzuak abian paratzea eta sektore guztietan emakumeak kontratatzea bultzatze aldera.
- Enpresaburuak sensibilizatu lanaldia berrantolatzea eta erregulatzea ahalbidetu dezan.
- Bikote gazteak hainbat gairen inguruan hezi, bertzeak bertze: haziera, haurren hezkuntza, zainketa eta erantzunkidetasuna.
- Gizonak aitatasunaren, zainketaren, mendekotasuna duten pertsonen heziketaren eta gizentasun eredu berrien inguruan hezi.
- Mendekotasuna duten pertsonen arreta egiteko laguntza zerbitzuak sortzea ahalbidetu, uztartzea, emakumeen enplegua eta zainketaz arduratzen diren pertsonen bizi kalitatea bermatze aldera.
- Udalek herrietan dituzten guneak egokitu, uztartzea bultzatuko duten kultur eta kirol jarduerak antolatzea errazte aldera.
- Hirugarren adinekoei eta haurrei zuzendutako uztartze zerbitzuak gaur egungo premietara eta geroko aurreikuspenetara egokitu.
- Gaur egun zerbitzua ematen duten autobus konpainien ordutegiak, maiztasunak eta geldialdiak berrantolatzea bultzatu, herrien arteko baliabideei etekina ateratzeko, eta uztartze zerbitzuetarako eta premietarako irismena bermatzeko.
- Osasun Departamentuari Bortzirietan Emakumeari Laguntzeko Zentro bat abian paratzea eskatu.

## **HONAKO ENTITATEOK:**

- **Arantzako Udala:** Alkatea: Bixente Arozena
  - **Berako Udala:** Alkatea: Helena Santesteban
  - **Etxalarko Udala:** Alkatea: Patxiku Irisarri
  - **Igantzikoko Udala:** Alkatea: Jesus Maria Begino Garro
  - **Lesakako Udala:** Alkatea: Juan Fermin Mitxelena Larralde
- 
- **ELA Sindikatua:** Koordinatzailea: Jose Maria Arribillaga
  - **Ricardo Baroja Eskola:** Zuzendaria: Jose Ramon Lopez
  - **Uxue Emakume Taldea: Presidente:** Dominica Merkadal
  - **Tokiona Guraso Elkartea, Bortziriakoa:** Jose Felix Aletxa
  - **Irain Guraso Elkartea:** Pilar Alzugarai
  - **Onin Udaltaldea:** Deñe Abuin Arrasate
  - **CEDERNA-GARALUR Elkartea:** Arantxa Arregi Alberro
  - **Igantzikoko Eskola:** Zuzendaria: Ana Irigoien Etxebeste
  - **Bortzirietako Osasun Zentroa:** Ordezkaria: Belen Compains Beaumont
  - **Tantirumairu Ikastola:** Lehendakaria: Pepitto Alzugarai
  - **Irain Eskola:** Zuzendariordea: Patxi Oteiza

## **HONAKO HAU ADOSTU DUTE**

**LEHENA:** Aitorpen orokorra

Bortzirietako Uztartzeko Toki Ituna (aurrerantzean “Ituna”) eta horren Lan Programa programazio etapa bakoitzean bete eta garatuko dela zainduko dute, eta, halaber, Itunak irauten duen bitartean, haien bitartez hartutako konpromisoak errespetatuko dituzte.

**BIGARRENA:** Itunaren iraupena

Itunak bi urteko iraupena izanen du, eta iraunaldia amaituta berritu ahal izanen da entitate sinatzaileek hala erabakiz gero.

**HIRUGARRENA:** Lan programa

Itun honen helburu orokorra lortze aldera, eta uztartze arloan antzeman diren premiei erantzunez, sinatzaileen iritziz lehentasuna duten eta egokien diren jarduerak jasoko dituen lan programa landu eta onartuko da urtero, betiere entitate sinatzaileek jarduera horiek gauzatzeko izanen duten ahalmenaren baitan.

**LAUGARRENA:** Itunaren antolakuntza

Itunaren garapenez Batzorde Instituzionala eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea arduratuko da.

Batzorde Instituzionala entitate sinatzaile guztiek osatuko dute. Ohiko bilera sei hilean behin eginen du, eta ezohikoa, berriz, Udalen batek edo entitate sinatzaileetakoren batek eskatzen duten guztietan.

Batzorde Instituzionalaren eginkizunak izanen dira:

- Itunaren buru eta ordezkari izatea.
- Urteko programa onartzea.
- Itunarekin bat egiteko eskaerak eta Itunetik baja emateko eskaerak onartzea.

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak koordinatuko du Ituneko jarduerak gauzatzea. Mankomunitatearen eginkizunak izanen dira:

- Urteko lan programa diseinatzea eta koordinatzea.
- Urteko lan programa gauzatuko dela zaintzea.
- Urteko lan programako jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak bilatzea.
- Urteko lan programako jardueren jarraipena eta ebaluazioa bermatzea.
- Ituna zabaltzea, eta atxikipen berriak lortzea.
- Batzorde Institutuzionalari Itunarekin bat egiteko eskaerak eta Itunetik baja emateko eskaerak proposatzea.

**BOSGARRENA:** Entitate sinatzaileen eginkizunak eta erantzukizunak Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bere gain hartuko ditu Itunaren buruzagitza eta Itunaren koordinazioa. Entitate sinatzaileen gainerako eginkizunak eta erantzukizunak urteko lan programaren jardueretara eta entitateek jarduera horietan izanen duten parte hartzera lotuko dira.

**SEIGARRENA:** Itunaren eta lan programaren jarraipena eta ebaluazioa Mankomunitateak Itunaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak proposatuko ditu, Ituna urteko lan programaren arabera gara dadin.

**ZAZPIGARRENA:** Atxikipenak Itun hau zabalik dago Itunaren oinarriekin eta helburuekin bat datorren, eta entitate sinatzaileek hartutako erabakiak errespetatzeko eta erabaki horiek garatzen laguntzeko konpromisoa hartzen duen eskualdeko edozein entitate nahiz eragile atxikitzeko. Itunarekin bat egiteko prozedura Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak zehaztuko du.

Bortzirietako Mankomunitatearen Uztartzeko Toki Ituna 2007-2008an zehar garatzeko, eta Itunean jasotako helburuak lortzen laguntzeko, honako lan programa proposatzen da:

## **BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEAREN UZTARTZEKO TOKI ITUNAREN 2007-2008ko LAN PROGRAMA**

### **- 1. arloa: Sentsibilizazioa:**

Sentsibilizazioa, batetik, herritarrei, oro har, zuzenduko zaie, eta, bestetik, zehazkiago, Bortzirietako hainbat kolektibori.

### **Erantzunkidetasunerako eta aitatasun baimenak bultzatzeko sentsibilizatu Jarduerak:**

Herritarrei, oro har, zuzendutako kanpaina bat burutzea, erantzunkidetasunak duen garrantzia azaltzeko. Honako ekintza hauek antolatuko dira herrietan: hitzaldiak,

tailerrak, erakusketan eta kultur jarduerak. Aitak landuko dira bereziki, aitatasun baimenak bultzatze aldera.

Herri bakoitzean programaturako diren jarduerak diseinatu.

Publizitatea editatu, eta hedabideetan zabaldu.

Kanpaina aurkeztu.

Jarduerak antolatu.

*Onuradunak:* Bortzirietako herritarrak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea

*Partaideak geureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinatzea eta abian paratzea 2007ko lehen hiruhilekoan

*Programa garatzea:* 2007an zehar

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2007ko abendua

## **Mankomunitateko lan esparruaren barnean sentsibilizatu**

*Jarduerak:*

- Sentsibilizazio kanpainak diseinatzea eta abian paratzea, negoziazio kolektiboaren bitartez lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatuko duten neurriak eta zerbitzuak abian paratzea eta emakumeak kontratatzea bultzatze aldera.

Kanpainaren diseinua

Hedabideei aurkeztu

Bortzirietako sindikatuei eta enpresaburuaren elkarteei aurkeztu, prestakuntza tailer baten bitartez.

Proposamenak landu negoziazio kolektiboan jasotzeko.

- Eskualdeko enpresaburuarekin lan saio bat antolatu, uztartzeari begira lanaldia berrantolatzeak eta sektore guztietan emakumeak kontratatzeak dituen onurei buruz sentsibilizatzeko.

Lan saioa diseinatu eta prestatu

Enpresaburu guztiei deia luzatu

Lanaldia burutu

*Onuradunak:* Mankomunitateko enpresaburuak eta langileak

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea

*Partaideak gureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinua eta abian paratzea, 2007ko 1. eta 2. hiruhilekoak

*Programa garatzea:* 3. eta 4. hiruhilekoak

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2007ko abendua.

## **- 2. arloa: Prestakuntza:**

Prestakuntza hainbat talderi zuzenduko zaie.

### **Erantzunkidetasunerako prestakuntza**

*Jarduerak:*

- Bikote gazteei zuzendutako hainbat prestakuntza tailer antolatu, honako hauek lantzeko: umeak haztea, eta haurren heziketa, besteak beste. Ikastaro hori erditzea prestatzeko tailerren barnean txerta daiteke.

- Kanpaina bat burutu, eta horren barnean: triptiko bat argitara eman, eta aitei zuzendutako orientazio tailer bat antolatu, aitatasuna, zainketa, eta gizontasun eredu berriak lantzeko.

Ikastaroen zabalpena/informazioa erditzea prestatzeko ikastaroetan, Guraso Elkarteetan, eta Haur Eskoletan eginen/emanen da.

*Onuradunak:* Mankomunitateko bikote gazteak eta aitak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea

*Partaideak gureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinua eta abian paratzea, 2007ko 1. eta 2. hiruhilekoak

*Programa garatzea:* 3. eta 4. hiruhilekoak

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2007ko abendua.

*Aurrekontua:* 2.500 €

### **- 3. arloa: Herritarrei zuzendutako zerbitzuak:**

Laguntza zerbitzuei dagokienez, dagoeneko herrietan abian dauden zerbitzuak hobetuko dira.

#### **Uztartzeari sostengua emateko zerbitzuak bultzatu herrietan abian dauden haurtzaindegietan, eskola publikoetan, erretiratuen klubetan, Kultur Etxeetan.**

- Arlo desberdinetan ordutegiak, egunak eta laguntza zerbitzuak areagotzeko premien inguruko azterketa bat egin; hartarako, erabiltzaileei inkesta bat eginen zaie.

- Laguntza zerbitzuak abian paratu; gaur egun dauden lokal horiek berak erabiliko lirakeke, eta hezitzaileak kontratatuko lirakeke.

*Onuradunak:* Mankomunitateko herritar guztiak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea

*Partaideak gureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinua eta abian paratzea, 2008ko 1. eta 2. hiruhilekoa

*Programa garatzea:* 3. eta 4. hiruhilekoa

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2008ko abendua.

#### **Herrietako kirol instalazioetan haurrei zuzendutako ekintzak antolatu, asteburuetan eta oporretan.**

10 urtetik gorako gazteen artean inkesta bat egin herritako kirol instalazioetan, asteburuetan eta oporretan, kirol eta aisia jarduerak antolatzeko. Inkestan bi sexuetako gazteen premiak hartuko dira kontuan, kirola nesken artean berariaz bultzatu beharra baitago.

Programatutako jarduerak abian paratu.

*Onuradunak:* Mankomunitateko neska-mutikoak, eta gazteak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea

*Partaideak gureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinua eta abian paratzea, 2007ko 1. eta 2. hiruhilekoak

*Programa garatzea:* 3. eta 4. hiruhilekoak

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2007ko abendua.

#### **- 4. arloa: Baliabideak egokitu:**

*Jarduerak:*

**Herrietako udal lokalak egokitu, gizarte zentroak bultzatzeko (arratsaldeko ordutegiarekin).**

Zentro horietan **adin guztietakoei** zuzendutako ekintzak antolatuko lirateke lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea bultzatze aldera.

Gizarte Zentro horien bideragarritasun azterketa.

Adin guztietakoak joatea ahalbidetuko duen kokapen egokia bilatu.

Premietara egokituko den kudeaketa kontratatu.

*Onuradunak:* Bortzirietako adin guztietako herritarrak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea.

*Partaideak gureganatzea:* gainerako entitate sinatzaileak

*Egutegia:* diseinua eta abian paratzea, 2008ko 1. eta 2. hiruhilekoak.

*Programa garatzea:* 3. eta 4. hiruhilekoak.

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2008ko abendua.

**Autobusen ordutegiak, maiztasunak eta geldialdiak berrantolatu.**

- Ordutegien, geldialdien eta maiztasunen inguruko premiak aztertu.
- Eskualdean lanean diharduten garraio enpresei aldaketa proposamenak egin.
- Aldaketen kostuak aztertu.
- Nafarroako Gobernuarekin harremanetan paratu.

*Onuradunak:* Bortzirietako adin guztietako herritarrak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea.

*Egutegia:* azterketa eta proposamenak, 2007ko 3. eta 4. hiruhilekoak.

*Programa garatzea:* 2008ko 1. eta 2. hiruhilekoak.

*Ebaluazioa eta proposamenak:* 2008ko abendua.

#### **- 5. arloa: Zerbitzu eskaera:**

*Jarduerak:*

**Nafarroako Osasun Departamentuari gaur egun abian dauden zerbitzuak hobetzea, eta Bortzirietan Emakumei Arreta egiteko Zentro bat zabaltzea eskatu.**

*Onuradunak:* Bortzirietako adin guztietako emakumeak.

*Koordinatzailea:* Bortzirietako Mankomunitatea.

*Egutegia:* harremanetan hastea; lehen bilera 2007ko 1. eta 2. hiruhilekoetan zehar.